



**Arartekoaren 6/2011 gomendio orokorra, urriaren 27koa.**  
**Haurrek eta nerabeek egindako kirola, une oro eta edozein testuinguruan, hezkuntza parametroen arabera garatzen dela bermatzearen egokitasuna.**

## **1. Sarrera**

Ararteko erakundeak eta, berariazko alderdiari dagokionez, Haur eta Nerabeen Bulegoak, hainbat forotan eta zenbait bidetatik adierazi izan diren kezka jaso ditu (kexa partikularrak, gizarte eta hezkuntza erakundeekin egindako bilerak, adituekin bideratutako kontrastea...) kirolaren esparruan hainbat entrenatzaileengan adingabeekiko antzemandako hainbat jokabide eta jarreraren inguruan. "Gehiegizkoak" izateagatik gaitzesgarritzat jotzen diren jokabideez ari gara eta, nolahi ere, hezigarritzat nekez joko ditugunak, izan ere, "norbera gainditzea eta norbanakoaren ahalmena lehertzea bultzatze aldera, pertsona mugara eramatea" oinarri gisa izanik, jokabide ikaratzailerak, iraingarriak, laidogarriak, orekarik gabeko zigorrekin, etab. hartzen dituzte.

Gogoetak eta, beraz, gomendio honek, haur eta nerabeekin egindako kirol jarduera duela hizpide azpimarratu behar dugu, bertan adingabearen interes gorena, bere garapen pertsonal eta sozialaren bilaketa lehentasunezko eginbehar gisa bilakatuta, edozein azterketa eta balorazioen ardatza da.

Euskadin kirola antolatze eta garatzeko euskal legeriak xedatutako eskumen banaketa dela-eta, izan ere autonomia, foru eta udal mailako herri administrazioen protagonismoa ezartzen du deszentralizazio, koordinazio eta eraginkortasun printzipioen babesean, egokitzen jo dugu gomendio orokor hau ematea eskumeneko erakunde bakoitzari mezu bera helarazteko biderik eraginkorrena izango delakoan, erakunde bakoitzaren ardurapean dagoen horretan aplikagarria izan dadin.

## **2. Haurren kirola euskal legerian**

Haur eta nerabeekin egindako kirolarekiko begirada zehatz hau, aurreko atalean aipatzen genuena, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko [uztailaren 11ko 14/1998 Legeak](#) defendatzen du. Lege horren V. tituluak kirol-sistema oren oinarri gisa definitzen duena du hizpide, hau da, eskolako kirola<sup>1</sup>. Horri helburu guztiz hezitzailea esleitzen dio, hitzaurrean aipatzen duenari jarraiki, honela definitzen baitu, "*Kirola garrantzitsua da eskolako ikasleen heziketa osorako, nortasunaren garapen harmonikorako eta baldintza fisiko eta prestakuntza egokiak lortzeko, gerora begira ere kirola egiten jarraitu ahal izan dadin*".

---

<sup>1</sup> "kirol jarduera antolatuta, ikasleek eskola orduetatik kanpo egiten dutena derrigorrezko eskolatze epean zehar". 14/1998 Legearen 53. artikulua.



Eskolako kirolari buruzko [uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak](#) berriro ere izpiritu hori jasotzen du eta [Kirolaren Euskal Planean \(2003-2007\)](#) ezarritako Eskolako Kirolaren Eregua araudiaren arabera garatzen du. Bertan, eskolako kirolaren lehen helburu gisa "jarduera egiten duen haurren hezkuntza garapena osatzea eta aldi berean kirolari bakoitzaren banakako beharrak asetzea" zehazten da, legean dagoeneko adierazitakoaren osagarri gisa azpimarratuz. Legean helburu hauek aipatzen dira: 1) berdintasun, diskriminazio eza eta estereotipoen gainditze baldintzetan gizarte parte-hartzeari emandako berariazko ekarpena, 2) kirol jardueren sustapenerako bideratzea, bizitza osasungarrien garapena ahalbidetzen dutenak, lehiaketekin lotuta egon behar izan gabe.

Helburu horrekin eta orientazioko printzipio horien mende, arauzko garapen ezberdinek, autonomia, foru zein udal mailan, eskolako kirolaren jarduera antolatua errealitate bihurtzen duten elementu eta alderdi ezberdinak artikulatzen eta zehazten dituzte, aplikatu beharreko diziplina erregimenaren aipamena barne, bertan arau-hausteak tipifikatu eta gaitzesgarritzat hartutako jarrerak deskribatzen baitira.

Adierazpen bideratzaile eta orokorrak egiteaz gain, badakigu hizpide ditugun jokabideak saihesteko beharra [eskolako kirolaren diziplina erregimena](#) erregulatzen duen araudian islatu behar dela. Araudi hori zehaztasunez aztertuta, horren inguruko xedapenak lehiaketaren esparruan egiten direla ikusten dugu, kirol ekitaldian parte hartzen duten guztiekiko errespetua eta biolentzia eza, lehiaketaren arauen eta epaile eta arbitroen onarpena, kiroltasunez jokatzeko, etab. aipatuz. Era berean, zigorrak, *hezkuntza, prebentzio eta zuzentze izaera*<sup>2</sup> izan behar dutenak, lehiaketetan zehar egindako arau-hausteekin zuzenean lotuta daude.

Ezin dugu ahaztu, hala ere, entrenamendu horietan, edo bere klub edo elkartean garatzen diren jardueretan, hain zuzen, haurrek kirol jarduerak helarazten eta sustatzen dituen baloreetan prestatzen hasten direla. Beraz, eremu horretan saihestu beharko lirateke lehiaketaren unean, balore horien aurkakoak izateagatik, gaitzesgarritzat jotzen diren jokabideetariko asko.

### 3. Herri administrazioen hobekuntza eremuak

- 3.1. Argi dago kirolak berezko indarra duela ahalegina, norbera gainditzea, frustrazioarekiko erresistentzia, autodiziplina, lankidetzeta eta lan taldea, ezberdina/kontrakoarekiko errespetu baloreak, solidaritatea, etab. bezalako gaitasunak garatzeko. Indar horren garapenari hezkuntzaren ikuspegitik aurre egitean, bestalde, entrenatzaileek gure haurren eguneroko autoezagutze, ikaste eta madurazio prozesuaren "laguntzaile, bultzatzaile eta orientatzaile" gisa duten papera azpimarratzen da. Entrenatzaile

---

<sup>2</sup> Eskola kiroleko lehiaketan diziplina erregimenari buruzko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren 1985ko uztailaren 29ko Aginduaren 10. artikulua.



horietako gehienek zuzentasun osoz burutzen dute haur eta gazteen kirol jardueraren zuzendaritza. Hala eta guztiz ere, izaera osatzeko beharrezkoa den eskakizun hori (aipatutako gaitasunak -ahalegina, norbera gainditzea, frustrazioarekiko erresistentzia...- bultzatu eta indartzeari dagokionez) erasotzaile, iraingarri edota orekarik gabekoak izateagatik gaitzesgarriak diren jarrerekin nahasten duten jokabideak daudela antzeman dugu.

- 3.2. Gehienek onartzen dute, eta horrela xedatzen dute arau eta politika publikoek, adin horietako kirol jardueraren helburuak hezkuntza duela oinarri. Kirol diziplina jakin baten trebetasun edota gaitasun teknikoak ikasi eta garatzea baino harago doa haurren erabateko hezkuntza osatzeko, norberaren eta gizartearen garapen osasungarria lortzeko balore positiboek hezkuntzan barneratuz. Horrek esan nahi du kirol jardueran bertan barneratzen dela hezkuntza aldagaia; gure haur eta nerabeen erabateko hezkuntza bultzatzen duten jarraibideak eguneroko eta ohiko jardura bideratzeko, zuzentzeko eta orientatzeko moduan gaineratzen dira; balore positibo horiekin eta horien bidez garatutako kirol jardueraren bizipena aurrera eramanez bihurtuko dira gure adingabeen gaitasunen parte.

Euskal Autonomia Erkidegoko kirola eta zehazki eskola adineko kirola erregulatzen duen arau multzoak lehentasunezko hezkuntza orientazio hori biltzen du eta kirol modalitate horren elementu artikulatzaile ezberdinetara bideratzen saiatzen da. Hala eta guztiz ere, onartezintzat edo behintzat gaitzesgarritzat eta, beraz, neurri batean zigorgarritzat, joko diren jokabide horiek eskatzen dituen azken urratsean, lehiaketaren uneak arautzera mugatzen da, klubaren edo erakundearen kirol jardura edo entrenamenduaren eremuan gerta daitekeen ezer ez aipatu gabe.

- 3.3. Hainbat erakundek edo klubek euren estatutuen bideetatik bideratu dute kontu hori, eta erakundea arautzen duten baloreak zein desegokitzat jotako jokabideak edo horrelako arazoak konpontzeko prozedurak eta erakundeak bildu dituzte bertan. Hala eta guztiz ere, hori konponbide partikular bat besterik ez da eta ez ditu euskal herri administrazio eskudunak salbuesten hezkuntza izpiritu hori euren araudi erregulatzailerara igarotzeaz, izan ere, izpiritu horrek eskola kirola bere osotasunean orientatzen du, une edo testuinguru zehatzik gabe.

Horregatik guztiarengatik, eta ahal duen heinean politika publikoak hobetzen laguntzeko helburuari erantzunez, Arartekoak egokitzat jotzen du honako gomendioa ematea.





## GOMENDIO OROKORRA:

- Euskal herri administrazio eskudunek, bakoitza ordenamendu juridiko eta administratiboak derrigortzen edota ahalbidetzen duen heinean, haur eta nerabeekin bideratu beharreko hezkuntza kirol jardueraren garapen egokirako jokabiderik egokienak zehatz ditzaten eta horrek lehentasunez izan behar duen hezkuntza edukiarekiko kontrakoak direnak zigor ditzaten, une, eremu eta testuinguru orotan aplikagarria den diziplina erregimen baten bidez. Horrek, gutxienez, honakoa dakar:
  - Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskola kirola arautzen duen garapenean haur eta nerabeekin bideratutako kirolari esleitutako hezkuntza funtzioarekin egokiak eta koherenteak diren jokabideak gainera ditzala. Halaber, bertan aplikagarria den diziplina erregimenaren araudi garapena aztertu eta egunera dezala, kirola edozein une, eremu eta testuingurutan gertatuta ere gaitzesgarritzat jotako jokabideak zigortuz.
  - Eskola kirolean eskumena duten hiru foru aldundietako sailek euren lurraldeetan eskola kirolaren antolamendua arautzen duten arau eta administrazio garapenetan kirolaren funtsezko heziketa-eginkizuna azpimarra dezatela, eta berariaz ezar ditzatela kirol jardueraren continuumean helburu horretarako egokiak diren jokabideak eta zigorgarriak diren jokabide gaitzesgarriak.

